



EKOGRAFIA BIDEZKO ABZESUAREN DRAINADURA DRENAJE DE ABSCESO POR ECO

- ABZESUAREN DRAINADURA interbentzio konplexuagoak egin behar ez izateko dagoen aukera bat da. Izen ere, interbentzio horietan anestesia erabili behar da, eta arriskutsuagoa da pazientearentzat. Ebakuntza honetan hustu egiten da barne-ehunetan pilatzen den zornea (drainatu).
- Horretarako, zuzenean ziztatzen da kaltetutako lekuaren, larruazaletik zehar; orduan, zuzenean xurgatzen da zornea edo hodi txiki edo kateter bat uzten da guztiz huts dadin.
- Kaltetutako lekura sartzeko, ekografia erabiltzen da; horri esker, inguruko egiturak kaltetu gabe zehaztu daiteke non dagoen gaixotutako leku.
- Interbentzioa egin aurretik, proba batzuk egiten dira odolaren koagulazioa egokia ote den zehazteko; orduan, anestesia lokala ematen da azalean, geroago ziztatu beharko den lekuaren.
- Interbentzio horren bidez, gaixotasunak eragiten dituen minak arintzen dira, eta, gainera, ehunen laginak lortzen dira. Lagin horiek aztertu egiten dira, ondoren diagnostikoa osatzeko.

GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK

- Oso nekez gertatzen dira hemorragiak. Izen ere, proba egin aurretik, zure odolaren koagulazioari buruzko probak egiten eta ebaluatzen dira.
- Errai hutsak eta pneumoperitoneoa ziztatzea.
- Proba egin ostean, gure jarraibideak bete behar dituzu, neurri batean atseden hartzeari buruz.

PAZIENTEAREN PRESTAKETA

BARAURIK etorri behar duzu.

BEREN BEREKI EMANDAKO BAIMENA

Praktika Kliniko Egokiak eta pazienteen eskubideen defentsa direla-eta, eskatzen dizugu idatziz adierazteko proba egiteko baimena ematen duzula. Beraz, proba egin behar den egunean, **Baimen Informatua** emango dizute; eta hora sinatu ezean, ezingo da proba egin.

- El **DRENAJE DE UN ABSCESO** es una alternativa a otras intervenciones más complejas, que precisan anestesia y suponen mayores riesgos para el paciente. Esta operación consiste en vaciar (drenar) la acumulación de pus en tejidos internos.
- Para ello se punciona (pincha) directamente la zona afectada y a través de la piel, aspirando directamente el pus o dejando un pequeño tubo o catéter, para que se vacíe completamente.
- La guía para el acceso a la zona afectada se realiza utilizando la Ecografía, de forma que sea posible localizar la zona enferma, evitando dañar estructuras vecinas.
- Antes de la intervención se realizan pruebas para comprobar la coagulación de la sangre, se procede a aplicar anestesia local en la zona de la piel donde se realiza la punción (pinchazo).
- Con esta intervención se alivia las molestias causadas por su enfermedad y, además, se obtienen muestras de tejidos para su análisis y posterior diagnóstico.

POSIBLES COMPLICACIONES

- Dado que antes de realizar la prueba se realizan y evalúan las pruebas de coagulación de su sangre, es muy improbable que se produzca una hemorragia.
- Punción de víscera hueca y neumoperitoneo.
- Despues de la realización de la prueba debe seguir nuestras instrucciones relativas al mantenimiento de un reposo relativo.

PREPARACIÓN DEL PACIENTE

Debe acudir EN AYUNAS.

AUTORIZACIÓN EXPRESA

Las Buenas Prácticas Clínicas y la defensa de los derechos de los pacientes nos obligan a solicitarle, por escrito, una autorización formal para poder realizarle la prueba. Por lo tanto, el día de la solicitud de la prueba le será entregado un **Consentimiento Informado** sin cuya firma no podrá realizarse dicha prueba.